



UNITATE
DIDAKTIKOA

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK AISIALDIKO BEGIRALEENTZAKO



NAZIO BATUEN GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

| Gaia | Garapen Jasangarrirako Helburuak |
|---|--|
| Norentzat | EAEko hezkuntza-aisialdiko taldeetako begiraleei zuzendua |
| Iraupena | 90 minutuko 3 saio |
| Laburpena | <p>GJHak munduko arazo handiei amaiera emango dieten neurriak hartzeko dei unibert-sala dira, besteak beste, pobrezia, klima-aldaketari edo pertsonen eta herrialdeen arteko desberdintasunei, pertsona guztiek bakean eta oparotasunean bizi ahal izatea bermatuko duten neurriak hartuz.</p> <p>Gero eta garrantzitsuagoa da jasangarritasunaren eta Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) inguruan heztea, 2030 agenda pertsonen bizitza hobetzeko bete dadin lortzera begira.</p> <p>Garapen Jasangarriaren dimentsioei buruzko hausnarketaren bidez, begiraleek GJHak ezagutzea eta hezkuntza-aisialdiko taldeetan parte hartzen duten pertsonak helburuak lortzeko orduan parte hartzeak duen garrantzia barneratzea lortu nahi da. Helburua, gainera, helburu horiek lortzen lagunduko duten eguneroko ekintzak identifikatzea da.</p> |
| HELBURUAK, EDUKIAK ETA FUNTSEZKO GAITASUNAK | |
| Helburuak | <ol style="list-style-type: none"> 1. Garapen jasangarrirako helburuak eta egungo gizartearentzat duten garrantzia ezagutzea. 2. Gazteei jasangarritasunaren eta ingurumen-erantzukizunaren balioak transmititzen ikastea, jolas- eta hezkuntza-jardueren bidez. 3. Ingurumenean dugun eraginari eta modu arduratsuan jarduteko beharrari buruzko hausnarketa kritikoa sustatzea. |
| Edukiak | <ol style="list-style-type: none"> 1. Garapen Jasangarrirako Helburuetara sarrera. 2. Jasangarritasunak aisialdian duen garrantzia. 3. Gure inpaktuari eta modu arduratsuan jarduteko beharrari buruzko hausnarketa kritikoa, jasangarritasuna eta ingurumen-erantzukizuna sustatuz. |
| Zeharkako funtsezko gaitasunak | Analisia eta ebazpena. Ekimena. Arintasuna eta ikaskuntza. Jarrera positiboa. Malgutasuna eta egokitapena. Pertsonen arteko komunikazioa. Talde-lana. Negoziazioa. Sormena eta berrikuntza. Ikuspegi orokorra. Konpromisoa. Lidergoa. Antolaketa eta plan-gintza. Erabakiak hartzea. Eta pertsonen eta taldeen garapena. |



METODOLOGIA

Metodologia

Unitate didaktikoa hiru unetan banatzen da:

Ezagutza: Begiraleek Garapen Jasangarrirako Helburuei buruzko ezagutzak eskuratzea bilatuz.

Hausnarketa: Gure inpaktua eta modu arduratsuan jarduteko beharra era kritikoan aztertzea eta hausnartzea, alternatibak planteatuz, konpromisoak eta erantzukizunak hartuz.

Ekintza: Azkenik, aisialdian egin daitezkeen proiektu jasangarriak gauzatzeko talde-lana sustatuz.

Eta, betiere, parte-hartzea eta elkarrizketa sustatzen duten talde-dinamiketan oinarrituta, bai eta aisialdiko taldeetan berezkoak diren jasangarritasuna eta ingurumen-erantzukizuna bezalako balioak transmititzeko jolas- eta hezkuntza-jarduerak ere.

JARDUERAK

1. jarduera Ezagutza

Zer dira Garapen Jasangarrirako Helburuak?

2. jarduera Hausnarketa

Garapen Jasangarrirako Helburuak kanpamentura eramaten ditugu

3. jarduera Ekintza

Imajinatu zure auzoa

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazioa

Ikaskuntza-prozesuaren etengabeko ebaluazioa.
Egindako jardueren eta dinamiken ebaluazioa.
Taldeen gauzatutako proiektu jasangarriaren ebaluazioa.

BEHAR DIREN BALIABIDEAK

Eranskinak

(1. eranskina)
“Hezkuntza-aisialdiko taldeak eta Garapen Jasangarrirako Helburuak” galdeketa.



1. JARDUERA EZAGUTZA

| Gaia | Zer dira Garapen Jasangarrirako Helburuak? |
|-------------|--|
| Iraupena | 90 minutu |
| Helburuak | <ul style="list-style-type: none">• Aisialdiko begiraleek Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJH) buruz duten ezagutza maila ezagutzea.• Garapen Jasangarrirako Helburuak ezagutaraztea.• Begiraleen artean GJHak barneratzea sustatzea, bai eta aisialdiko taldeek garatutako jarduerak 2030 Agendak proposatzen dituen helburuekin lerrokatzearen garrantzia ere. |
| GARAPENA | |
| Metodologia | <p>Galdera hauek egin zaizkio taldeari: entzun al duzue Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJH) buruz hitz egiten? 17 GJHetako baten bat izendatu dezakezue? Ezagutzen al duzue 2030 Agenda eta GJHein duen harremana?</p> <p>17 helburuak bere izenik gabe jasotzen dituen GJHen gurpila aurkezten dugu, eta bakoitza zein den identifika dezatela eskatzen diogu taldeari. (15 minutu)</p> <p>Jatorriaren laburpen labur bat egiten da, zeintzuk diren helburu horiek eta zer lortu nahi duten.</p> <p><i>2015eko irailean egin zen Garapen Jasangarrirako Goi Bileran, NBEko kide diren estatuek (193 herrialde) Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuten. Bertan, Garapen Jasangarrirako 17 Helburu (GJH) eta 169 xede biltzen dira. Ezagutarazi, sakondu eta gure inguruneetara hurbildu behar ditugun zenbait helburu planteatzen dizkigu, horiek betetzeko dugun erantzukizunaren parte gogoraraziz. Azken helburua mundua, ingurumena gehiago errespetatzen duen eta denboran jasangarriagoa den modu gizatiarra ulertzea da. (20 minutu)</i></p> <p>GJHei buruz dakitena jakiteko, inkesta bat betetzera gonbidatuko ditugu. Inkesta horren bidez, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzen laguntzen ari diren moduari buruz aisialdiko begiraleek duten iritzia jaso nahi dugu. Galdera-sorta laburra da, berez interesgarria izateko bezain osatua, baita ondorengo eztabaidaren oinarri izateko ere.</p> <p>Bertan, Hezkuntza Aisialdiko Erakundeek (HAE) eta horiek osatzen dituzten pertsonak Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJH) buruz duten ezagutza neurtzeko pentsatutako zenbait galdera planteatzen dira. Era berean, HAEek gai horri buruz dituzten beharrak eta interesak ezagutu nahi dira. (15 minutu)</p> <p>Amaitzeko, GJHei buruzko bideo bat ikusiko dugu. (10 minutu) “Garapen Jasangarrirako Helburuak” (UNESCO Etxea 6’)</p> |

HAUSNARKETA ETA EBALUAZIOA

Galdeketa bikoteka bete ondoren, zenbait minutu emango zaizkie bikotekidearen erantzunak irakur ditzaten, banakako erantzunak eztabaidatuz eta aztertuz. Zergatik aukeratu duzue erantzun bat besteen aurrean? (15 minutu)

Bideoari dagokionez, bertan agertzen diren erronkak izendatzeko eskatuko diegu. Hori ahots biziz egin daiteke, edo ekarpenak itsatsiko diren mural batean. Post-it-ak aztertu eta galdetuko diegu: Zer ezagutza genuen aldez aurretik? Zein gunetan entzun dugun GJHei buruz hitzegiten edo izan dugun GJHei buruzko dibulgazio-materialerako sarbidea? (kartelak, publizitatea, erakusketak, argitalpenak...)? (15 minutu)

BEHAR DIREN BALIABIDEAK

(I. eranskina) "Hezkuntza-aisialdiko taldeak eta Garapen Jasangarrirako Helburuak" galdeketa
Ordenagailu eramangarria eta proiektorea
GJHen gupila
Post-it-ak
Errotuladoreak
Folioak eta kartoi meheak






2. JARDUERA HAUSNARKETA

| | |
|-----------------------------------|--|
| Gaia | Kanpamentura eramango ditugu GJHak |
| Iraupena | 90 minutu |
| Helburuak | <ul style="list-style-type: none"> • Ingurumenean dugun eraginari eta modu arduratsuan jarduteko beharrari buruzko azterketa eta hausnarketa kritikoa egitea. • Jorratutako gaia barneratzea, begiraleek beraiek alternatibak proposa ditzaten. • Ingurumenari eragiten dioten erabakiak hartzerakoan konpromisoak eta erantzukizunak hartzea. |
| GARAPENA | |
| Metodologia | <p>Parte-hartzaileei eskatuko diegu, 3-4 pertsonako taldean, imajina dezatela nolakoak ziren kanpamenduak GJHei dagokienez 2000. urtean. Hausnarketa hori maketa batean islatuko dute (iraganeko denboran). Horretarako material suntsikorrek emango dizkiegu, STEAM metodologiaren ereduari jarraituz.</p> <p>Talde bakoitzak bere maketa aurkeztuko du denen aurrean. (30 minutu)</p> <p>Talde berberetan, egungo kanpamentu baten bigarren maketa bat diseinatzeko eskatuko diegu, urte hauetan garatu diren GJHak identifikatuz. (30 minutu)</p> <p>Aurkezpenaren ondoren, gai hauen inguruan hausnarzeko gune bat irekiko da: zergatik aldatu diren zenbait gauza, nork erabaki zuen beste modu batera egin behar zela, nola egin behar zen, nola imajinatzen dituzten kanpamentu horiek eta nolakoa izango litzatekeen beraientzat kanpamentu egokiena etorkizunean. (20 minutu)</p> <p>Aisi-Hezi Fundazioaren “Kanpamentu jasangarrirako eskuliburua” aurkeztu diegu. (10 minutu)</p> |
| HAUSNARKETA ETA EBALUAZIOA | |
| | Beraien idealak egunen batean egia bihurtuko direla uste dute? Zer zailtasun aurkitzen dituzte? Zer egin dezakete banaka hori lortzeko? Eta aisialdiko talde gisa? Zer izan da maketetan proposatu den gauzarik harrigarriena? |
| BEHAR DIREN BALIABIDEAK | |
| | <p>Lanerako espazio zabala.</p> <p>Papera, errotuladoreak, zeloa, pintura, plastilina, pinotxo-papera, zelofana, gometsak, kartoi meheak, guraizeak, material birziklatua (paper-biribilkiak, tapoiak...).</p> <p>Aisi-Hezi Fundazioaren “Kanpamentu jasangarrirako eskuliburua”</p> |

3. JARDUERA EKINTZA

| | |
|-----------------------------------|---|
| Gaia | Imajinatu zure auzoa (aisialdiko zure taldea dagoen lekua) |
| Iraupena | 90 minutu |
| Helburuak | <ul style="list-style-type: none">• Talde-lana sustatzea, aisialdian egin daitezkeen proiektu jasagarriak gauzatzeko. |
| GARAPENA | |
| Metodologia | <p>Post-it bana emango diegu begiraleei, etorkizunean euren auzoa nolakoa izatea gus-tatuko litzaiekeen irudika dezaten. Zein izango da 10 urte barru beren auzoari buruz aurkitu nahiko luketen prentsa-titularra eta aisialdiko talde gisa zer egin dezakete hori lortzeko. Post-it-ak jaso eta horman itsatsiko ditugu.</p> <p>Ausazko lantaldeetan, kide bakoitzak labur aurkeztuko du bere burua eta bere propo-samenak partekatuko ditu. Eztabaida bat irekiko da, adostasun handiena sortzen dute-nak aukeratuz. Taldearen tamainaren arabera une horretan bertan egin daitezkeen 2-3 ekintza aukeratuko ditugu.</p> <p>60 minuturen buruan laneko gunera itzuliko dira, eta talde bakoitzaren bozeramaileek beren ekintza aurkeztuko diete gainerakoei (zer egin duten, zailtasunak, alderdi positi-boak...).</p> |
| HAUSNARKETA ETA EBALUAZIOA | |
| | Talde-eztabaida irekiko da, Gizartearen ikuspegitik proposamenak arduratsuak al dira? Alde teknikitik eta ekonomikitik bideragarriak al dira? Eta jasagarriak? Zein da gure egitekoa aisialdiko talde gisa? Pertsonekin eta ingurumenarekin errespetuzkoak al dira? |
| BEHAR DIREN BALIABIDEAK | |
| | Lanerako espazio zabala. |





aisi
hezi
Fundazioa

bulegoa@aisi-hezi.org | T. 688668843



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO